

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jon Ezeiza Areitioaurtena

*Donostia,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Arrasate kalean jaio zen; amak janari-denda zeukan han, baina umea zela Loiolara joan ziren bizitzera. Hantxe joan zen eskolara lehenengo, eta gero San Antonio ikastetxera. 14 urterekin hasi zen lanean, Gantxegi oihal dendan laguntzaile. 25 urterekin "biajante" hasi zen, dendaz denda emakume arropa saltzen. Lanbide hori izan du erretiroa hartu arte, nahiz eta azken hamarkadetan beste etxe batentzat ibili lanean. Hiru senide ziren. Aita, Rosario, Beizamakoa zen. Ama, Felisa, antzerkigile ezaguna izan zen garai batean, Toribio Altagarekin-eta ibilitakoa, Euskal Iztundean. Gerraostean antzerki taldea berpiztu zenean, harengana jo zuten berriro, "Andre Joxepa Tronpeta" egiteko. Eta ez zen animatu, baina semea bai; Jonek 17 urte zituen orduan. Maria Dolores Agirre zuten zuzendari. Euskararen aldeko lanetan ez ezik, musika taldeekin eta dantzan ere ibili zen. Amaia Labordarekin (antzerkia egiten ezagutu zuten elkar) ezkondata dago, eta seme bat dute.

Zintak

DON-036

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-19
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Loiolara bizitzera

- **Erref:** DON-036/002
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:00:43. **Bukatu:** 00:02:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Gerra hasi zen urtean jaio zen, Donostian. Gurasoak ez ziren inora joan. Amak janari-denda zeukan, eta ahal bezala konpondu ziren. Gero, Loiolara joan ziren bizitzera. Ama feminista zen, Emakumeetakoa. 35 urterekin ezkondu zen. Bi senide ditu, anaia eta arreba.

2. Ama-semeak antzerkian

- **Erref:** DON-036/003
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Loiolan bizi zirela, amak antzerkia egiten zuen don Toribio Alzagarekin. Aurretik Pospolinetan ibili zen, don Ramon Labordarekin. Antzezlan asko egin zituen; herriz herri, asteburuetan. Gerra hasi aurretik ezkondu ziren. 17 urterekin hasi zen Jon antzerkian, Andre Joxepa tronpeta lanean. Maria Dolores Agirre zuzendaria. Jose Mari Etxebeste. Gregorio Beorlegi, Joxe Egileor... antzerkian zebiltzanak. Giroa. Emaztea antzerkian ezagutu zuen.</p>

Transkripzioa

-Ba han, Loiyolan gendela izandu zun... ba nere amak antzerkia iten zun don Toribio Alzagan taldekoakin. Bueno, don Toribio Alzaga baiño lehenago, Eusko Etxean talde bat sortu omen zan /omentzan/: Poxpoliñak. Poxpoliñak izenekoa, don Ramon Labordak zuzentzen omen zun /omentzun/. Ta don Ramon Laborda hori nere emazten osaba da. Osaba izan zan /izantzan/. Eta ama hor hasi zan sobrare antzerkia, pospoliñak eitten, eta gero ba nik ez dakit ya nola, don Toribion taldeko... Escuela de la Academia Vasca... Nola zan? Declamación. Escuela y Declamación Vasca. Ta don Toribiokin hasi zan, eta badirudi ba gure amak "pues" zeuzkala dote, artista izateko. Eta antzerki asko ein zittun. Antzerki asko, urtero... Eta gero, ordun esaten zunez gure amak, e... herrita juten zian festata. Bai Bergara, Oñatira, Mondragoira, Eibarrea... ba astebukaeretan eta... Donostin jartzen zuen antzerkia, ba han prestatzen zuen, eta bueno... E, hori ba gerra hasi baiño lehen. Ta /da/ nere aita.... Nere aitak Rosario zun izena, eta ezkondu zian, ni jaiyo nitzan eta bueno, gure... Gero ni hogeita hamabost urtekin ezkondu nitzan Amaia Labordakin, eta harrezkeo hemen ba Parte

Zaharrean bizi gea.

Antzerkian, ba nik esan dizuten bezela, hamazazpi urtekin hasi nitzan. “Andre Joxepa Tronpeta” antzerkia, don Toribio Alzagana. Eta orduan bazeon paper bat: “Digromático, jefe de Digromáticos”, sorgin herrian sortutako personai bat. Eta haren papera iten nun. Abotsa ba sendo xamarra neukan eta ondo entzuten omen zitzaidan. Eta hor hasi nitzan, eta han ezautu nittun ba antzerkiko jende asko ta asko. Maria Dolores Agirre... zoragarritzko emakumea, zoragarri bai zela. Beak esaten zun askotan “zoragarri, zoragarri”, baiña bea bai zela zoragarri. Eta han zeuden ba... Gregorio Beorlegi, Joxe Egilegor, Antonio Etxeberria, Donato Ugartetxea, eta gero jende berria sortzen hasi zan: Joxe Mari Etxebeste´re sartu zan taldean; bere emaztea, Rosita Arruabarrena ere bai... Eta bueno, hor sartzan giñuzten Juantxo Amilibia, Maritxu Ezkurra... jende asko elkartzen giñan eta oso giro ona zeon, oso giro abertzalea, oso giro herrikoia. Oso gustoa, ta gure gauzak-ta izaten giñuzten, gue jaiyak eta gue festak. Ta ondo, ondo konpontzen giñan. Maria Dolores zan zuzendaria eta Joxe Mari Etxebeste da laguntzaille bezela. Maria Dolores don Toribiori launtzen hasi zitzaion bezela, Joxe Mari Etxebeste ba Maria Dolores Agirreri lagun haundiya eman, egiten zion. Eta bueno, hor ibili giñan, eta gero ya Maria Dolores jubilatatu zanean, baa... Bueno, Amaia, nere emaztea, antzerkian ezautu nun. Han geundela. Bea klaseak esatea juten zan, eta ni ba antzerkia itea, eta horrela hasi giñan, eta han sortu zan gure... gure bizimodua.

3. Antzerkian, euskararen alde

- **Erref:** DON-036/004
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:08:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Euskal Iztunde taldea bukatu zanean, Antzerti sortu zen. Euskal antzerki profesionala egin nahi zuten, eta orduan erretiratu zen Jon. Troiarrek antzezlanak: papera erdaraz ez zuen egin nahi izan, bera euskararen alde lan egiteagatik zegoelako antzerkian.</p>

Transkripzioa

Gero, antzerkia, taldea... Euskal Iztunde taldea bukatu zanean, Maria Dolores jubilatatu zan, ta /da/ prestatu zuen ya Antzerti taldea. Ta Antzerti taldea ba... hor zenbiltzenak profesional jokatzeko, euskal antzerki profesionala in nahi zuen. Eta nik esaten nun ez nula... nik ez nun profesionalki hontatik bizi nahi. Nik ein deten pittina beti euskararen alde izan da. Euskera ta euskera ta euskera. Eta hor hasi zian ba euskera ta erderaz ta in behar zala. Ordun prestatu zuen... “Troyarrak”. “Troyarrak”, eta Iñaki Beristainek euskeratu zun, eta Esteban Polls, katalan bat etorri zan antzerki hua zuzentzea. Ordun eee... han geundela, ba nei Menelaun papera eman zian, eta euskeraz, euskeraz antzerkia in behar, zertu behar gendun Vitoria Eugenia. Eta bueno, batzuk hasi zian esanaz, alegia, erderaz ere ikasi behar zela. Eta nik esan nieten itezkeotan nik euskeraz bakarrik ingo nula, ez nula erdeaz ein... erderaz eingo. Ta Esteban Polls horrek esan zian: “Eres peor que los catalanes”. Ta nik esan nion: “Ba

baleike, baiñan...". Ta hoi, ensaiyo batea jun giñan, eta gehiyenak, gehiyenak edo danak papera genekanak, erderaz hasi zian, eta nik, nere papera iritsi zanian, euskeraz ein nun. Ta taldeko bateonbateg esan zidan: "Eta zuk zergatik ez dezu erderaz ikasten papera?". Eta nik esan nion: "Ni honea euskeraren alde ta euskal antzerkiari pixkat launtzeko etorri naiz, eta ez dakat zergatik erderaz ikasi beharrik". Hasarretu zitzaidan pixkat, eta esan niyoten: "Bueno". Zuzendariari, Esteban Pollsei esan nion: "Ez bazaizu ondo iruitzen nik erderaz ez ikastea, papera beste norbaiti emaiyozu. Badao denbora, garaiya dao, eta billa zazu beste bat". Eta esan zian /esantzian/ ezetz. Eta ordun nik papera ez nun erderaz ikasi.

4. Antzezlanak, kontrolpean

- **Erref:** DON-036/005
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:08:35. **Bukatu:** 00:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Lanbideak » Polizia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Santo Tomas egunean hiru funtzio egiten zituzten; zaletasun handia zegoen. Maria Doloresek Gobernu Zibileran joan behar izaten zuen, itzulpenak eginda, baimen bila. Trabak. Zentsura. Guardia zibilak eta sekretak ibiltzen ziren beti inguruan. Pasadizoa kontralari buruz. Jesuitetan, Aita Altunaren sermoiak ere kontrolatuta.</p>

Transkripzioa

-Ta hala antzerki asko egiten giñuzten. Santo Tomas eunen beti, San... e... Antzoki Zaharrean. Ba hiru funtzio iten giñuzen, e! Bostetan, zazpitan ta hamar t´erditan. Zaletasun haundia zeon, teatroa leporaiño betetzen zan, sarrerik gabe... ta hori, euskal kutsu haundia zeukalako. Hor ibiltzen giñan, Maria Dolores gaixoa... Gobierno Zibillea jun behar izaten zun /izatentzun/ eee.... Itzulpenak, euskerazko antzerkiak erderatu eta hara eamanaz, ba baimena lortzeko. Bestela ez zuen /etzuen/ baimenik ematen. Ta hara juten zan bakoitzen Maria Dolores, sekulako trabak eta sekulako istilluak sortzen zizkioten.

-Zentsura haundiya zeon? Zentsura haundiya zeon?

-Itxura? Bueno, bai...

-Ez, zensura, zensura...

-Zensura haundia, bai, bai, bai. Zensura... Bueno, beste batian gertatu zitzaion Iruna jun giñan antzerki obra bat jartzea. Eta beti "vijilancia" beti guardia zibilak, hemen Teatro, Antzoki Zaharrian ere beti guardia zibillak eta "policia secreta" ta ibiltzen zian. Eta han eszenario atzian ni nengola, eszenaiyoan, eszenatokian ez dakit zeintzuk zeuden, baiño bakizu, euskeraz "eta" izena askotan erabiltzen da: "Eta hau eta hua eta...". Eta orduan atzian zeuden bi sekretak deitu niñuen txoko batea, ta esan zian: "Oiga, por qué se dice tantas veces la palabra eta?". Eta nik esan nion, nere esplikazio txikia eman nion, eta hortan gelditu giñen, baiña... noraiño kontrolatuta zeon Polizia bidez antzerkia. Antzerkia eta jesuitatan hamartarditako mezetan, euskerazko meza, ordun ere poliziaz beteta eoten zan /eotentzan/ atzeko aldia, zer esaten zun Aita Altunak; Azpeitiko

jesuitak ze esaten zittun grabatzen ta hor... Eta hortan ba istillu asko ibili genun guk. Istillu asko. Gero manifestazioak ziala ta abar ta abar.

5. Aberri Egunak

- **Erref:** DON-036/006
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:12:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Manifestazioak eta istiluak. Aberri Egunean kuadrilla guztia Arantzazura joaten zen, eta ikurrina jartzen zuten. Grisak atzetik zituztela.</p>

Transkripzioa

-Eta manifestaziotan-ta ibiltzen ziñeten zuek?

-Bai, bai. Eta beste gauza txiki batzutan ere bai, baiño badaude gauz batzuk kontatu littezkkeenak, baiño ez dittut esan nahi, politikari buruz ta nola sartuta ibili giñan eta... gauz txiki batzuk iten giñuzen, beti bildurrak, beti aidian... Aberri Egunetan ba beti sortzen zan istillua. Guk beti Aberri Eguna... koadrilla guztia juten giñan Arantzazua egun batzuk pasatzea. Eta han ikurriña batzuk jarri eta ba, ordun garaiko lan txikiak. Eta gero Aberri Egunean, beti izaten zan /izatentzan/ herri batean o hiri batean, eta handik juten giñan nola-hala. Oñatira jeitsi, trena hartu eta Gasteiza o Iruñara edo Donostira... gertatzen... Bergarara. Gertatzen... Aberri Euna ikaragarri ta haundi haiek sortzen zianian, han ibiltzen giñan Polizia gora eta [...] gora, korrika batea eta korrika bestea.

-Grisak?

-Grisak, bueno, ikaragarri, ikaragarri. Eta bueno, holako gauza eta ixtorik asko sortzen dia garai... sortzen zian garai hartan. Oaiñ ya paketsuago gaude, eta oain ya zartu, zahartzen ai gea eta... bueno ba, hor.

6. Musikazaletasuna eta bidaiak

- **Erref:** DON-036/007
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:12:03. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Oso musikazalea da. Talde askorekin ibili izan da, hara eta hona. Gazte samarrik Italiara joan zen. Bartzelonako etxe baterako egiten zuen lana; bidaiak ematen zizkioten opari. Komertzial bezala ibili zen.

7. Loiolan, militarrez inguratuta

- **Erref:** DON-036/010

- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:15:49. **Bukatu:** 00:18:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Oraingo Arrasate kalean jaio zen. Iberduero zegoen, Kutxa... Bi urterekin joan zen Loiolara. Militarrez inguratuta bizi ziren Loiolan. Amarentzat Jaungoikoa, abertzaletasuna eta familia ziren gauzarik inportanteenak. Etxean, beti euskaraz. Kalean debekatua zegoen. Pasadizoa.

8. Eskola eta lehenengo lana

- **Erref:** DON-036/011
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:18:41. **Bukatu:** 00:19:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Loiolako eskola publikoetara joaten zen, eta gero San Antonio ikastetxean, Urdaneta lanean. 14 urterekin hasi zen lanean, Gantxegi dendan. Oihalak, alfonbrak... Hango lanak.

9. Soldadutza, Loiolan

- **Erref:** DON-036/012
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:19:57. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutza Loiolan egin zuen. Orduan ohitura zegoen boluntario joateko, baina bera ez. Carrascalen hilabete batzuk egin zituen, eta han gaizki. Bueltan, Gantxegi dendan egin zituen pare bat urtez. "Biajante" hasteko aukera izan zuen arte.</p>

10. "Biajante", batetik bestera

- **Erref:** DON-036/013
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:24:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

"Biajante" hasi zen, mailetekin aurrera eta atzera. Dos Caballos autoarekin. Gutxi zeuden orduan. 45-46 urte arte ibili zen han, eta gero Bartzelonako etxe batekin. Euskarak asko lagundu zion, saltzen; euskalduna izateak. Emakumeen barruko arropa saltzen zuen, kamisoiak eta. Dendaz denda.

11. Eskolan, erdaraz

- **Erref:** DON-036/015
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:25:09. **Bukatu:** 00:26:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Eskola publikoetan besoa altxatu behar izaten zuten, "Viva España" esanez. Abestiak. Donostian Elbira Zipitria-eta hasi ziren euskaraz erakusten, baina Loiolan ez. Mutilak bakarrik zeuden gelan. Dena bekatu zen lehen eta orain dena libre.

12. Antzerkia, euskara lantzeko bidea

- **Erref:** DON-036/016
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:26:56. **Bukatu:** 00:29:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Irakasleak kanpotarrak ziren. San Antonio ikastetxean bazegoen maisu bat oso gaiztoa. Zigorrik ez, euskaraz egiteagatik. Euskara lantzen antzerkiak lagundu zion. Kursaaletan noizen behin jaia antolatzen zuten emakumeek, guraso abertzaleen haurrentzat.</p>

13. Abesteko zaletasuna

- **Erref:** DON-036/017
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:29:22. **Bukatu:** 00:31:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Etxean, abesteko zaletasuna izan dute beti. Bigarrenean bizi ziren, eta hirugarrenean militar bat seme-alabekin. Boga-boga... Aberri Eguna beti ospatu izan dute etxean. Urrezko eskumuturrekoak, amak aitari oparitutakoak.

14. Beizamara irin bila

- **Erref:** DON-036/018
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:31:53. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Beizamakoa zen aita, eta irin bila joaten ziren. Estraperloa. Aitak maletinean ekartzen zituen babarrunak, arto-irina... Aia egiten zuen, ogia ere bai etxean amak. Sukaldari ona zen.</p>

15. Amaren orde, bera antzerkian

- **Erref:** DON-036/019
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:37:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Antzerkian nola hasi zen kontatzen du, Maria Dolores Agirreren taldea sortzen hasi zenean. Ramontxo obrarako amaren bila joan zirenean, hark ezetz esan zuen. 17 urte zituen, eta bera animatu zen. Hasierako asmoa behin egitea zen. Hasieran, bakar samarrik. Easo kalean elkartzen ziren, musika kontserbatorioan. Musika eskolak ematen zituen Maria Doloresek. Itzulpen zoragarriak egiten zituen, Buero Vallejorenak. Aurreko antzezlanak ere berritzen ziren. Don Toribiok paperak egiten zituen antzezle bakoitzarentzat, eskuz.</p>

16. Entseguak

- **Erref:** DON-036/021
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:37:17. **Bukatu:** 00:41:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Etxean ikasten zituzten paperak. Toki handirik ez zuten entsegatzeko. Bezperan Antzoki Zaharrean egiten zuten antzezlanak. Euskal gaiak ziren gehienak, baina itzulpenak ere bazeuden. Yerma euskaraz egin zuten: Iturriagor. Jarrai antzerki-taldea ere bazegoen; nola deitu zioten paper bat egiteko, kide bat espetxean sartu zutelako. Konpetentzia zegoen bi taldeen artean.</p>

17. Antzerkian, musutruk

- **Erref:** DON-036/022
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:41:07. **Bukatu:** 00:45:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Euskal Iztundean gerra aurreko dekoratuak zeuden. Maria Doloresek aukeratzen zituen jantziak. Gero, "Troiarak" egiteko Madrildik ekarri ziren jantziak, Eusko Jaurlaritzak. Aurretik, estutasunak. Autoa askotan jarri zuen. Maria Doloresek bere poltsikotik ematen zien propina. Kamara beltza nola egin zuten. Urtean bazkari bat ematen zieten. Jendea irrikaz egoten zen antzerkia ikusteko. Emaztea nola ezagutu zuen; Maite abesbatzan zebilen.</p>

18. Antzerkiko lagun taldea

- **Erref:** DON-036/025
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:47:39. **Bukatu:** 00:50:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Euskal Iztundean jai txikiak antolatzen zituzten, afariak eta. Kuadrilla girokoak. Juantxo Amilibiak egindako txistea. Aberri Egunean elkartzen zen talde guztia. Urbian ere bai. Ikurrinarekin lotutako pasadizoa: argazkiak atera, eta haiek Poliziaren eskuetan eror ez zitezen egin zuena.</p>

19. Dantza eta euskal jaiak

- **Erref:** DON-036/027
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:51:13. **Bukatu:** 00:54:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Dantza lehiaketetan hainbat sari irabazia da. Konstituzio plazan txistuarekin egiten zuen dantza, igandero. Oargi taldea. Euskal jaiak nolakoak ziren. Euskal jantzi lehiaketan saria nola irabazi zuen behin. Jose Artetxe idazlea. Sokamuturra.</p>

20. Bere kasa dantzan

- **Erref:** DON-036/028
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:54:46. **Bukatu:** 00:57:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Bere kasa ikasi zuen dantzan. Lehengusua Goizaldin zebilen, eta hark erakutsi zizkion lehen pausoak. Beizaman, San Pedro egunean, hiru pare alpargata hautsi zituen. Lehiatzen nola hasi zen, Mirentxurekin, eta Hernanin bigarren saria nola irabazi zuten. Ez zegoen orain beste teknika.

21. Herrian sortua

- **Erref:** DON-036/029
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:57:59. **Bukatu:** 01:00:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Bertsolaritza nola aldatu den. Basarri, Uztapide, Lazkao Txiki... bertsolariak. Herrian sortua izatearen garrantzia. Zipitriari semearen izena, Manex izena, gustatu egin zitzaiola kontatzen du. Elbira Zipitria nolako zen, zorrotza. Ikastolak.</p>

22. Bertsolariak

- **Erref:** DON-036/031
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:00:40. **Bukatu:** 01:01:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>San Inazio egunean plazan izaten ziren bertsolariak, eta herri askotan ere bai. Beizaman, Zaldibian. Leihotik leihora. Sagardotegietan ere ibiltzen ziren. Antzerkia egiten zutenean, Manuel Olaizola Uztapide eta Iñaki Eizmendi Basarri izaten ziren bertsotan. Lopategi bertsolaria ere aipatzen du. </p>

23. Sagardotegiak

- **Erref:** DON-036/032
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:01:55. **Bukatu:** 01:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Sagardotegira Astigarragara joaten zen aitarekin; etxetik eramaten zen janaria, eta sagardoa hartzen zen. Pitxarrarekin. Txotxa geroxeago hasi zen.

24. Garai bateko Loiola

- **Erref:** DON-036/035
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:05:39. **Bukatu:** 01:06:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Loiola zeharo aldatuta dago. Baratzak zeuden, etxe txikiak, kuartelak, baserriak... Berdura eta esnea Donostiara eramaten zituzten baserritarrek. Eguneko esnea erosten zuten.</p>

25. Maria Guerrero euskalduna

- **Erref:** DON-036/037
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:07:20. **Bukatu:** 01:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Gurasoek bere bizitzan izan zuten eragina. Amaren aita Zaldibarkoa zen. Han jaio zen ama, baina umetan Donostiara joan zen bizitzera. Amaren euskara. Maria Guerrero deitzen zioten barriolarrek amari, antzerkian ona zelako. Ama nolakoa zen.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com